

## GUNEEN LAGAPENA

Ardoi Kirol Patronatua, Zizur Nagusiko Udal Kirol Instalazioen kudeatzaile, erakunde publikoa da eta kudeaketa eta erabilpen mota guztietako ekintzak gauzatzeko gaitasun juridiko osoa du, mugaketa bakarrak indarrean diren legeek eta bere estatutuek jarritakoak izanik.

Hortaz, Patronatuko Batzordeak eta horretako presidentek erakunde publiko edo pribatuei utz diezazkiekete haren guneak kirol edo kultur ikuskizunak egiteko denborarako eta kirol jarduerak edo diziplinak instalazioetako ikasle abonatuarekin gauzatzeko behar den denborarako Kirol Patronatuaren jardunen gauzapean normalari eragiten ez badiete. Horregatik, beharrezkoa da bi erabilera motak erregulatzeko arauak finkatzea. Bi lagapenak Udalak urte bakoitzerako indarrean izaten dituen tasen edo Patronatuak berak onesten dituen tasen ordainketaren menpe egonen dira.

Instalazioen erabilerak, arau hauek erregulaturik, aurretiko baimena beharko du, interesatuak idatziz eskaturik eta hauek zehazturik: eskaeraren helburua, gauzatuko edo emanen den jardueraren deskripzioa, aurreikusten den parte-hartzaile kopurua, abonatuarentzako jardueraren doakotasuna edo, bestela, eginen dutenek ordainduko dituzten prezioak. Patronatuaren jardunen gauzapean normalari eragiten ez dionean bakarrik izanen da posible erabilera. Hark berarentzat erreserbatzen du kontratuaren gaia den gunea ezohiko inguruabarregatik bere ekintzak gauzatzeko erabili behar duenean eginiko kontratua deuseztatze eskubidea. Hori erreserbaren data baino gutxienez 10 lanegun lehenago jakinarazi beharko da.

Kirol espazio bakoitzak bere lagapen erregelamendua izanen du.

Udala, jabe izanik, eta bere Patronatuak %100ean libratuko dira soilik lagapenari dagokiona ordaintzetik.

Jaiegunetan eta lagapena doakoa bada, atezaintza, zaintza eta garbitasuneko langileen gastuak ordaindu beharko dira.

Kontratua betetzeko, ezarritako kanonaren %100eko fidantza jarriko da Kirol Patronatuaren alde. **Fidantza hori oro har exijituko da, baina erakundeak, kanona ordaintzetik libratzen bada, dagokion %10 ordaindu beharko du, gertakaria bukatuta itzuliko zaiona.** Kasu hauetarako bermea izanen da fidantza:

- a) Eskatzaileak betetzen ez duenerako, eta ez du fidantza itzultzeko eskubiderik izanen lokal edo instalazioak erabiltzeari uko egiten badio eta Patronatuari idatziz gutxienez 10 egun lehenago jakinarazten ez bazaio.
- b) Instalazioko lokal eta materialetan narrioak edo edozein kalte egiten direnerako.

### **Frontoiaren lagapena:**

**Gimnasioen lagapena:** Gune honen lagapena edozein kirol jarduera instalazioetako abonatuarekin egin nahi duten erakunde, elkarte edo partikularrei eginen zaie soilik, baldin eta abonatuaren kopurua eta joateagatik ordaindu behar duten kuota kirol zerbitzuak onetsi baditu. Interesatuak beharrezko eskaera beteko du eta aurretik jarritako tasa ordainduko du. Tasa pabiloiaren 1/3aren alokairuaren parekoa izanen da.

**Pabiloiaren lagapena:** Pistaren erreserba dagokion tasa ordaindu gabe izateko ezinbestekoa da erabiltzaileen %75 gutxienez abonaturik egotea eta hori federazioko fitxaz justifikatuko da lehiaketa alorreko taldeak izanez gero edo abonatu txartelaren fotokopiaz eta baimen sinaduraz lehiaketa alorretik kanpoko taldeak izanez gero. Kasu horretan, abonatuak ez direnek kantxarako sarrera bertara sartzen diren bakoitzean ordainduko dute. Abonatuaren ehunekoa 75 baino txikiagoa balitz, eskatzaileak gunearen alokairuari dagokion tasa ordaindu beharko luke, pertsona abonatuak egon ala ez.

Kolektibo bakoitzak 6 € ordainduko du jokaturiko partiduko kanpoko taldearengatik eta epaileen aldagelarengatik tasa gisa. Horretarako, 200 € ordaindu izanaren frogagiria

erantsiko du eta hortik deskontatuko dira partiduak eta ez abonatu en asistentziak eta, denboraldia bukatzean, egokia bada, geratzen den kantitatea itzuliko zaio.

**Futbol zelaiaren lagapena:** Zelaiaren erreserba dagokion tasa ordaindu gabe izateko ezinbestekoa da erabiltzaileen %75 gutxienez abonaturik egotea (federazioko fitxaz justifikatuko da lehiaketa alorreko taldeak izanez gero). Abonatu en ehuneko a 75 baino txikiagoa balitz, eskatzaileak gunearen alokairuari dagokion tasa ordainduko beharko luke, pertsona abonatuak egon ala ez.

Eskatzaileen %75 instalazioko abonatuak badira, erabakiriko tarifak aplikatzen ahalko zaizkie antolaturiko jardueraz diru sarreraren bat sortzen badute.

## **PROZEDURA**

Beharrezko eskaera aurkeztuko da Kirol Zerbitzuko bulegoetan, arauetan aipatzen diren datu guztiekin batera.

Eskaera jasota, Kirol Zerbitzuak uzteko guneen erabilgarritasunaz kontsultatuko du. Ondoren, eskatzaileei jakinaraziko zaie Udalak edo Kirol Patronatuak onetsiriko tarifen arabera fakturatzeko zenbatekoarekin batera.

Erakunde eskatzaileari lagapenaren baldintzen eta igorriko aurrekontuaren onarpenaren baieztapena eskatuko zaio. Baieztapen hori erabakiriko kantitatea berehala ordainduz eginen da.

Instalazioen erabilera dela eta aginduriko kantitateak ez dira zatikagarriak eta kontratua sinatzean eta ekitaldia egin aurretik ordaindu beharko dira, Kirol Zerbitzuan berean bai txartel bidez bai Patronatu honen kontuan sartu izanagatiko ordainagiria emanez.

Programaturiko jarduera eginen ez balitz, ordainduriko tarifa itzul liteke baldin eta gertaera hori Kirol Zerbitzuari ekitaldia baino hirurogeita hamabi ordu lehenago gutxienez jakinaraziko balitzaio.

## **GUNEEN LAGAPENARI BURUZKO ARAUAK**

1. Guneak erabiltzeko eskaerak idatziz egin beharko dira finkaturiko ereduaren arabera.
2. Eskaera gunea erabili nahi den eguna baino gutxienez astebete lehenago egin beharko da.
3. Pertsona edo erakunde eskatzailea izanen da jarduera gauzatzearen ondorioz gerta daitezkeen istripuen erantzule bakarra.
4. Udalak berarentzat erreserbatzen du jardueraren data edo ordua aldatzeko eskubidea programazio edo mantentze beharren edo horiek eragin ditzaketen ezusteko gertaeren arabera.
5. Programaturiko jardueratik sorturiko gastuak eskatzailearen kontura izanen dira, baita utziriko gunea erabiltzean gerta daitezkeen kalteek eraginikoak.
6. Eskatzaileak, Udaleko Elkarteen Erregistroan inskribaturiko herritar erakundea bada, eskaerarekin batera “**Erregistro horretan inskribaturik dagoelako eta datu guztiak eguneraturik dituelako ziurtagiria**” aurkeztu beharko du (ziurtagiri hori Udaleko Elkarteen Erregistroan eskatzen da).
7. Nola nahi ere, pertsona edo erakunde eskatzaileak guneko jardun orduetara (ireki eta ixteko, e.a.) eta lagapen baldintzetara mugatzeko konpromisoa hartzen du.



SOLICITUD DE ESPACIO / GUNEAREN ESKABIDEA



D/Dª ..... J/A-ak DNI/NIF.....  
Izen-deiturak ..... NAN/IFZ

Con domicilio en..... Calle .....  
Helbidea.Herria ..... Kalea

Teléfono ..... EN NOMBRE PROPIO O EN REPRESENTACIÓN DE  
Telefonia ..... (Táchese lo que no proceda)  
BERE IZENEAN EDO ONDOKO HONEN ORDEZKARI GISA  
(Ezabatu behar ez dena)

D/Dª ..... J/A-ak DNI/NIF.....  
Izen-deiturak ..... NAN/IFZ

Con domicilio en..... Calle .....  
Helbidea.Herria ..... Kalea

teléfono ..... C.P. ....  
telefonoa ..... K.P.

ACTIVIDAD A REALIZAR

**EGITEKO**  
**JARDUERA**

ESPACIO SOLICITADO

**ESKATUTAKO**  
**GUNEA**

DIA SOLICITADO

**ESKATUTAKO**  
**EGUNA**

HORA SOLICITADA

**ESKATUTAKO**  
**ORDUA**

**RESPONSABLE ACTIVIDAD / JARDUERA - ARDURADUNA**

D/Dª ..... J/A-ak DNI/NIF.....  
Izen-deiturak ..... NAN/IFZ

Teléfono .....  
Telefonia

Nº ASISTENTES  
BERTARATUTAKO  
KOPURUA

CONDICION

**IZAERA**

NECESIDADES TECNICAS:

**BERHAR TEKNIKOAK**

OBSERVACIONES / OHARRAK:

FIRMA SOLICITANTE / ESKATZAILEAREN SINADURA:

